

Hiru zornotzar Waterpolo Euskal Selekzioan

June Zaton, Ane Arizona eta Iurgi De Castro Amorebieta-Etxanoko waterpolo taldeko hiru kide Infantil mailako Euskal Selekzioko taldean Madrilen, Espainako Autonomi Erkidegoen arteko txapelketan parte-hartzeko aukeratuak izan dira.

Apirilak 1-4-ra, aukera izango dabe infantil mailan 16 selekzio eta nesken mailan 11 selekzio waterpoloko txapelketan parte-hartzeko.

Helburua, bai mutil bai nesken txapelketan pasadan urteko 4.en postua berdintzea edo hobetzea da.

Horrez gain, Euskal Selekzioko infantil mailako mutilak Kroaziara joango dira Tomo Txapelketan parte-hartzera apirilak 11-16-ra.

Urritik Euskal Selekzioko entrenatzaileek infantil mailako jokalariekaz lanean dabilz teknifikazioen bitartez. Joan Albellak (Euskal Selekzioko arduraduna) idatzi bat argitaratu dau adieraziz aurtengo umeen aukeraketa zaila izan dala maila altua dabezan jokalarien artean 13 mutil eta 13 neskakaz gelditzeko.

Gure hiru jokalaria oso fin ibili dira euren taldeko entrenamenduak, Euskal Selekzioko teknifikazioak eta Bizkaiko taldean egindako teknifikazioak kudeatzeko.

Amorebieta waterpolo taldeak egindako lan gogorra eta etengabea emaitzekaz isladatzen ari da.



Waterpoloaz disfrutatzen jarrai dagigun danon laguntzaz.



Aseguru artekaritza

J.J. BURGOA

Correduría de seguros S. L.

- Vehículos *Ibilgailuak*
- Comercio *Merkataritza*
- Hogar *Etxebizitza*
- Pyme
- Accidentes personales *Istripu pertsonalak*
- Vida y jubilación, etc. *Bizi-iraupena eta jubilazioa*

San Miguel, 20 AMOREBIETA
Tel.: 94 673 00 41 Fax: 94 673 42 92



FOTOCOPIAS e IMPRESIONES de TODOS LOS TAMAÑOS
B/N y COLOR - ESCANEOS DE TODOS LOS TAMAÑOS -
ENCUADERNACIONES - PLASTIFICADOS TODOS LOS TAMAÑOS -
TRABAJOS DE IMPRENTA (sellos, tarjetas, talonarios, flyers, etc)
VENTA Y RECARGA DE CARTUCHOS DE IMPRESORA
REGALOS PERSONALIZADOS... etc

aranpil@gmail.com - kopisteriakopion@gmail.com
Tel. / Fax : 94 673 09 43 San Miguel, 6 bajo AMOREBIETA